

# INFORMAZIOKO BARNE SISTEMAREN PROTOKOLOA

AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ

ZARAUZKO UDALA



ZARAUZKO UDALA



INFORMAZIOAREN SAILKAPENA	
<b>Fitxategiaren izena</b>	Informazioko barne sistemaren Protokoloa
<b>Aplikazio-eremu geografikoa</b>	Globala
<b>Barneko aplikazio-eremua</b>	Globala
<b>Kategoria</b>	Politika
<b>Onarpen-data</b>	2023ko ekainaren 12a
<b>Aurreko bertsioa</b>	1.0
<b>Onespen-organoa</b>	Alkatetza
<b>Egilea</b>	FERNÁNDEZ & ELEJALDE ABOGADOS
<b>Kontrol-arduraduna</b>	Iruzurra Kontrolatzeko Batzordea
<b>Barne informazioko sistemaren arduraduna</b>	Iruzurra Kontrolatzeko Batzordea / Amaia Gorrotxategi andrea
<b>Indarrean den bertsioa</b>	1.0
<b>Aplikazio-data</b>	2023ko ekainaren 13a
<b>Argitaratua eta eskuragarri</b>	<a href="http://www.zarautz.eus">www.zarautz.eus</a> webgunean



**ALDAKETEN KONTROLA**

<b>BERTSIO A</b>	<b>DATA</b>	<b>ONESPEN- ORGANOA</b>	<b>EGILEA</b>	<b>ALDAKETEN LABURPENA</b>
1.0	2023/06/12	Alkatetza	FERNÁNDEZ & ELEJALDE ABOGADOS	Hasierako agiria.



**AURKIBIDEA**

1.	SARRERA	1
2.	ARLO OBJEKTIBOA	2
3.	ARLO SUBJEKTIBOA	3
4.	INFORMAZIOKO BARNE SISTEMAREN ARDURADUNA	4
5.	SISTEMAREN ARDURADUNAREN ZEREGINAK	4
6.	SISTEMAREN KUDEATZAILEAREN EGINKIZUNAK	4
7.	INTERES-GATAZKEN KUDEAKETA	5
8.	INFORMAZIOKO BARNE SISTEMAREN BERMEAK	5
9.	ERREPRESALIARIK EZA	6
10.	SALAKETAK ETA KONTSULTAK EGITEKO BITARTEKOAK	6
11.	KONTSULTAK TRAMITATZEA	8
12.	FEDE ONEKO SALAKETAK ETA FEDE ONIK GABEKO SALAKETAK	8
13.	SALAKETAK JASO ETA TRAMITATZEKO ONARTZEA	8
14.	SALAKETAK SAILKATZEA	9
15.	SALAKETA-ESPEDIENTEA TRAMITATZEA	10
16.	ESPEDIENTEA EBAZTEA	10
17.	ERREGISTRO LIBURUA	11
18.	INFORMATZAILEA BABESTEKO AGINTARITZA INDEPENDENTEARI SALAKETA JAKINARAZTEA	12



## 1. SARRERA

Informazioko barne sistema tresna garrantzitsu bat da iruzurrari aurea hartzeko eta, oro har, udalean dauden jokabide irregularrak saihesteko. Hura nola ezarri 2/2023 Legeak arautzen du; 2/2023 Legea, otsailaren 20koa, arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzkoa (aurrerantzean "2/2023 Legea"). Betebehar hori betetzeko, Alkatetzak protokolo hau onartu du. Protokolo hori Iruzuraren eta Ustelkeriaren Aurkako Udal Planean (aurrerantzean, PAF) integratuko da ahalik eta lasterren, udalbatzaren erabakiz. Horretarako, aipatutako PAFean Kanal Etikorako ezarri den araudia aldatuko da.

Dokumentu honen xedea da Informazioko barne sistema arautzea. Sistema horren helburua da Udala osatzen duten pertsonen modu erraz, anonimo eta konfidentzian jakinaraztea aplikatzeko den araudiaren edo jokabide etiko baten aurkakoak izan daitezkeen jarduketak guztiak.

**Informazioko barne sistema nola eta noiz erabili behar dugun ondo jakitea funtsezkoa da sistema hori erabilgarria eta eraginkorra izan dadin**

Informazioko barne sistemaren helburua da kudeaketa publikoaren gardentasun-maila handitzea, zerbitzari publikoen portaera etikoa areagotzea, baita udalak eta herritarrek elkarrekin duten konfiantza-harremana hobetzea ere. Horretarako, Udalaren Informazioko barne sisteman herritarrek parte har dezakete, Informazioko barne sistemaren Protokolo honetan datorren bezala.

Jakinazpen bat jasotzen denetik komunikazio hori ebatzen den arte aplikatu behar diren prozedurak eta jarduketak jasotzen dira protokoloan, hori guztia 2/2023 Legean xedatuta dagoen moduan.

Protokolo honek udala eta harekin harreman zuzena eta zeharkakoa duten pertsona guztiak inplikatzeko ditu. Udalarekin harreman profesionala duten pertsona guztiek sistema horren bidez eta hemen deskribatutako prozedurarekin bat etorriaz komunikatu behar dituzte ustezko irregulartasun penalak eta haien funtzioak eta jarduerak garatzean ikus ditzaketen edo izan ditzaketen ustezko arau urratzeak.



## 2. ARLO OBJEKTIBOA

Informatzaileek, Informazioko barne sistemaren bidez, Udalaren jardueraren esparruan izaten diren irregulartasunei buruzko informazioa bidali beharko dute. **"Irregulartasunak"** honako hauek dira:

- a) PAFeko arauak eta haren Kode Etikoa urratzen duen edozein ekintza edo omisio.
- b) Arau-hauste penal edo administratibo larria edo oso larria izan daitekeen edozein ekintza edo omisio. Hor sartzen dira Ogasunarentzat eta Gizarte Segurantzarentzat kalte ekonomikoa dakarren arau-hauste penal edo administratibo larri edo oso larri oro.

Bereziki, iruzur, ustelkeria, funtzionario-eroskeria, finantzaketa bikoitza, dirua bidegabe erabiltzea edo interes-gatazken kudeaketa desegokiaren ondorio izan daitezkeen kasuak.

- c) Europar Batasunaren egintzen aplikazio-eremuan sartzen den edozein ekintza edo omisio, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko urriaren 23ko 2019/1937 (EB) Zuzentarauaren 2. artikuluan eta eranskinean zerrendatzen direnak (Zuzentarau hori Batasunaren Zuzenbidearen arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesari buruzkoa da), barne-ordenamendu juridikoak horien gainean egiten duen kalifikazioa gorabehera (I. eranskinean dago transkribatuta 2. artikuluan hori).
- d) Europar Batasunaren finantza interesei kalte egiten dien edozein ekintza edo omisio, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren (aurrerantzean, EBFT) 325. artikuluan jasotzen den bezala (I. eranskinean dago transkribatuta 325. artikuluan hori).
- e) Barne-merkatuan eragina izan dezakeen edozein ekintza edo omisio, EBFTaren 26. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusten den bezala, Europar Batasunak estatuen bidez ematen dituen eskumenen eta laguntzen arloan hausten diren arauak barne, bai eta barne-merkatuan hausten direnak sozietateen gaineko zergaren arauak urratzen dituzten egintzekin lotuta edo sozietateen gaineko zergari aplikatu beharreko legeriaren xedea indargabetzen duen onura fiskala lortzea helburu duten jardunbideekin lotuta (26.2 artikuluan hori dokumentu honen I. eranskinean transkribatzen da).

Informazioko barne sistemaren bidez komunikatutako irregulartasun oro **"salaketa"** gisa hartuko da.



Era berean, Informazioko barne sistemaren bidez bidali ahal izango dira Protokolo honen irismenari eta edukiari buruzko "**kontsultak**", haren aginduen interpretazioari buruzkoak edo kasu jakin batean aplikatzeari buruzkoak.

### 3. ARLO SUBJEKTIBOA

Honako pertsona fisiko eta juridiko hauek erabili beharko dute Informazioko barne sistema (aurrerantzean, **informatzailea** edo **informatzaileak**):

1. Lan nahiz lanbide aldetik udalarekin harremana dutenak, betiere honako hauek barnean hartuta:
  - udalean ordaindutako eginkizunak betetzen dituztenak, hala nola (i) karrerako funtzionarioak, (ii) bitarteko funtzionarioak, (iii) lan-kontratuko langileak, finkoak, mugagabeak edo aldi baterakoak, (iv) behin-behineko langileak, eta (v) alkatearenak, osoko bilkura osatzen dutenak eta hala badagokio tokiko gobernu batzarra osatzen dutenak.
  - beren kontura udalarentzat lan egiten dutenak.
  - udalaren kontratistentzat, azpikontratistentzat eta hornitzaileentzat bere kontura edo besteren kontura lan egiten duen edonor.
2. Udaleko profesionalen legezko ordezkariak, informatzaileari aholkuak eta laguntza emateko zereginetan.
3. Era berean, Informazioko barne sistema erabili ahal izango dute udalarekin izandako lan- edo estatutu-harreman bat dagoeneko amaituta egonda ere arau-hausteen gaineko informazioa lortu eta jendaurrean zabaltzen dutenek, hala nola boluntarioak, bekadunak, prestakuntza-aldietan dauden langileak (ordainsaria jasotzen duten ala ez kontuan hartu gabe), bai eta udalarekin lan-harremana oraindik hasi gabe dutenak ere, baldin eta arau-hausteen gaineko informazioa kontratu-aurreko hautaketa- edo negoziazio-prozesuan lortu bada.

**Oso garrantzitsua da Informazioko barne sistemaren bidez irregulartasun zantzu guztiak lehenbailehen jakinaraztea**

4. Profesionalen eta laguntzaileen artean jakinarazi eta zabaldu beharko da badagoela Informazioko barne sistema bat eta nahitaez jakinarazi beharra dagoela irregulartasunen baten susmo sendoa dagoenean (Kode Etikoa datorren moduan). Era berean, protokoloa interesdun guztien eskura egongo da udalaren webgunean.



#### 4. INFORMAZIOKO BARNE SISTEMAREN ARDURADUNA

Informazioko barne sistemaren kudeaketa Alkatearen dekretuz eman zaio Iruzurra Kontrolatzeko Batzordeari (aurrerantzean, "**Sistemaren arduraduna**"), PAFa betetzen dela ikuskatzeko sortua izan baita.

Era berean, eta 2/2023 Legearen 8.2. artikulua dakarrenarekin bat etorriz, Iruzurra Kontrolatzeko Batzordeak Amaia Gorrotxategi andrearen esku utzi ditu Informazioko barne sistema kudeatzeko eta ikerketa-espedienteak tramitatzeko ahalmenak ("**Sistemaren kudeatzailea**").

#### 5. SISTEMAREN ARDURADUNAREN ZEREGINAK

**Sistemaren arduradunari** honako eginkizun hauek dagozkio, Informazioko barne sistema dela-eta:

- a) Informazioko barne sistemaren arreta eta kudeaketa egokia bermatzea.
- b) Informatzaileentzat konfidentziasuna eta errepresaliarik eza bermatzea.
- c) Ager litezkeen interes-gatazkak kudeatzea.
- d) Tramitatutako espedienteen gainean ebazpen egokiak ematea.
- e) Sistemaren kudeatzaileak interes-gatazkarik edukiz gero, espedienteak hasteko eta tramitatzeko ardura bere gain hartzea.

Beraz, bera da organo eskuduna edozein erabaki hartzeko eta Protokolo honetan deskribatutako jardura guztiak gauzatzeko.

#### 6. SISTEMAREN KUDEATZAILEAREN EGINKIZUNAK

Sistemaren kudeatzaileari honako eginkizun hauek dagozkio, Informazioko barne sistema dela-eta:

- a) Informazioko barne sistema kudeatzea, eta horren inguruan egindako jardura guztien Erregistro Liburua eramatea.
- b) Informatzaileentzat konfidentziasuna eta errepresaliarik eza bermatzea.
- c) Irregularitasuna ekar dezakeen edozein gertakariri buruzko barne-ikerketak hastea eta zuzentzea, eta organo eskudunei zehapenak proposatzea.
- d) Dagozkion ikerketa-espedienteak hastea, zuzentzea eta tramitatzeko, eta jasotako salaketak egiaztatzeko eta ikertzeko prozedurak bultzatzea.
- e) Ikerketa-espedienteen emaitzen berri ematea sistemaren organo arduradunari.





## 7. INTERES-GATAZKEN KUDEAKETA

### 7.1. Interes-gatazkak eta independentzia babestea.

- a) Sistemaren organo arduraduneko kideren bat interes-gatazka batean sartuta badago, horren berri eman beharko dio Alkatetzari edo Tokiko Gobernu Batzarrari, Alkatetzaren eskumen delegatuekin jarduten badu, eta hark izango du, halaber, gai horren inguruan sor daitezkeen zalantzak edo gatazkak ebazteko eskumena.
- b) Sistemaren organo arduraduneko kide guztiek independentziaz eta inpartzialtasunez jardun beharko dute, eta beren lana ahalik eta ardura eta ahalmen profesional handienarekin egin beharko dute.

### 7.2. Sekretu-betebeharra.

- a) Sistemaren organo arduraduneko kide guztiek sekretuan gordeko dituzte beren eztabaidak eta erabakiak, eta, oro har, ez dituzte emango beren karguan dihardutela eskura dituzten informazioak, datuak, txostenak edo aurrekariak, ez eta beren edo hirugarrenen onurarako erabiliko ere.
- b) Sistemaren organo arduraduneko kideen konfidentzialtasun-betebeharrak bere horretan jarraituko du, baita kargua uzten dutenean ere.
- c) Konfidentzialtasun-betebehar berberak izango dituzte organo arduradunari edozein modutan laguntzen dioten pertsonak, Informazioko barne sistemaren Protokolo honetan xedatuta datorren bezala, bai kanpoko aholkulari gisa bai beste edozein baldintzatan.

**Informatzailearen anonimotasuna eta  
informazioen konfidentzialtasuna bermatuta  
daude**

## 8. INFORMAZIOKO BARNE SISTEMAREN BERMEAK

- 8.1 Salaketak kudeatzeko, printzipio hauek bete beharko dira: konfidentzialtasuna, anonimotasunaren bermea, datu pertsonalen babesa eta informazioaren segurtasuna. Beti eta uneoro bermatuko da salaketaren konfidentzialtasuna, bai eta prozedura honetan ezartzen diren jardunbideetan zuzenean edo zeharka parte hartzen duten guztien intimitaterako, ohorerako eta norberaren irudirako eskubidea ere.



8.2 Salaketa baten xede direnek (eraginkadoek) eskubide hauek izango dituzte:

- Alegazioak idatziz egitea.
- Sistemaren arduradunarekin aurrez aurre edo beste edozein bide erabiliz elkarrizketa bat izatea.
- Errugabetasun-presuntzioa errespetatzea.
- Egokitzat jotzen diren frogabideak aurkeztea.

## 9. ERREPRESALIARIK EZA

9.1. Ohiz kanpoko egitate bat edo jokabide irregular bat fede onez informatzen duena ezin izango da kaleratu edo zigortu eta ezin izango zaio bere lanbide-harremanean edo lanbide-sustapenean bestelako kalterik egin.

**Erabat debekatuta dago informatzailearen aurka errepresaliak hartzea**

9.2. Fede oneko salaketa baten ondoren errepresalia gisa informatzailearen aurkako lan-neurri negatiboak hartu badira, udalak ahalik eta lasterren botako ditu atzera, eta informatzaileari bere eskubideak itzuliko dizkio.

9.3. Errepresaliarik ez hartzeko bermeak honako hauei ere emango zaizkie:

- ✓ Informatzaileari, lan egiten duen erakundearen esparruan, prozesuan laguntza ematen dioten pertsona fisikoei;
- ✓ informatzailearekin zerikusia duten eta errepresaliak jasan ditzaketen pertsona fisikoei, nola lankide hala senide;
- ✓ lantokian informatzailearen buru diren pertsona juridikoei edo lan-testuinguruan harekin beste edozein harreman mota dutenei edo partaidetza esanguratsua dutenei. Alde horretatik, akzioei edo partizipazioei dagozkien kapitalean edo boto-eskubidean modu esanguratsuan parte hartzen dela ulertuko da baldin eta, partaidetza-proporzioaren arabera, pertsona juridiko partizipatuarengan eragiteko gaitasuna badu.

## 10. SALAKETAK ETA KONTSULTAK EGITEKO BITARTEKOAK

10.1. Salaketak eta kontsultak bide beretik bidali ahal izango dira [kanaletikoa@zarautz.eus](mailto:kanaletikoa@zarautz.eus) helbide elektronikoaren bidez, eta Sistemaren Kudeatzaileak jasoko ditu (aurrerantzean, "**Sistema**").



10.2. Interesdunak Informazioko barne sistemaren bidez salaketa edo kontsulta bat bidaltzen duenean, hartu-agiri bat jasoko du, komunikazioa behar bezala prozesatu dela eta jasotako komunikazioari dagokionez konfidentzialtasun osoa bermatzen zaiola adierazteko.

10.3. Salaketak eta kontsultak ahoz ere egin ahal izango dira, Sistemaren kudeatzailearekin elkarriketa edo bilera ginez. Sistemaren bidez eska daitezke bilera horiek.

Kasu horretan, informatzaileak ez badu berariaz baimena ematen, elkarriketak ez dira grabatuko. Sistemaren kudeatzaileak akta egin beharko du, eta honako puntu hauek jasoko ditu akta horretan: (i) salatzailearen datuak; (ii) salaketa zein egunetan egin den; (iii) salatutako egitateen laburpen bat; (iv) lekukoak, halakorik balego, eta dokumentuak edo froga-artxiboak, halakorik balego. Salatzaileak berariaz sinatu behako du idatzi hori, aurretik irakurrita eta onetsita.

10.4. Informatzaileak helbide bat, helbide elektronikoko bat edo toki seguru bat adierazi ahalko du, jakinarazpenak jasotzeko.

10.5. Informatzaileak eskubidea izango du salaketa modu anonimoan aurkezteko eta tramitatzeko.

Informatzaileak salaketa modu anonimoan aurkezteko asmoa badu, identifikatzeko modurik ematen ez duen posta-kontu pertsonal bat erabili ahalko du, edo bera identifikatu ezingo duen helbide bat sortu, honako lotura honen bidez:

<https://accounts.google.com/signup/v2/createaccount?flowName=GlifWebSignIn&flowEntry=SignUp>.

Kontua sortzeko jarraibideak protokolo honen 2. eranskinean datoz.

10.6. Kontsultak eta/edo salaketak Informazioko barne sistemaren edozein bitartekotatik igortzen direla ere, horrek esan nahi du igorleak onartzen duela protokolo hau, bereziki datu pertsonalak babesteari buruz dakarrena.

**Irregularitasun bat salatzeke, helbide elektronikoko hau erabil dezakezu: kanaletikoa@zarautz.eus; edo, bestela, aurrez aurre salatu**



## **11. KONTSULTAK TRAMITATZEA**

- 11.1. Jasotako Kontsulta bakoitzari identifikazio-kode bat emango zaio. Kode hori "K" letraz hasiko da kasu guztietan, eta, gero, dagokion zenbakia eramango du, hau da, urtea eta dagokion Kontsulta zenbakia. Hala, urteko lehenengo kontsultak 1/20xx zenbakia izango du.
- 11.2. Kontsultei hamar (10) eguneko epean erantzungo zaie (jasotzen denetik aurrera kontatuta), salbu eta Sistemaren kudeatzaileak motibo arrazoituengatik beste hamabost (15) egunez atzeratzea erabakitzen ez badu.
- 11.3. Erantzuna Sistemaren kudeatzaileak bidaliko du aurrez aipatutako helbide elektronikoa erabilita.

## **12. FEDE ONEKO SALAKETAK ETA FEDE ONIK GABEKO SALAKETAK**

- 12.1. Fede oneko salaketatzat hartuko da:
  - a) gertakari edo zantzu batzuetan oinarritzen bada, eta gertakari edo zantzu horietatik, arrazoiz, ohiz kanpoko egitate bat edo irregulartasun bat atera badaiteke.
  - b) egiaren kontrako mespretxu nabarmen gabe egiten bada; eta ez badu inongo asmorik salatutako pertsona horren kontra mendekua hartzeko, jazarpen morala eragiteko, laneko galera edo kalte profesionala sorrarazteko edota haren ohorea kaltetzeko.
- 12.2. Fede onik gabeko salaketatzat hartuko da:
  - a) egitateak faltsuak direla dakienean, edota egiaren kontrako mespretxu nabarmenez jokatzeko duenean.
  - b) mendeku hartzeko asmoa badago, edo salatua jazartzekoa, edo ohorea kaltetzekoa edo lan arloan zein eremu profesionalean kaltea eragitekoa.

## **13. SALAKETAK JASO ETA TRAMITATZEKO ONARTZEA**

- 13.1. Informazioko barne sistemaren bidez informatzaileak salaketa bat bidaltzen duenean, hartu-agiri bat jasoko du salaketa egiten den egunetik zazpi egunen buruan(7), komunikazioa behar bezala prozesatu dela eta jasotako komunikazioari dagokionez konfidentzialtasun osoa bermatzen zaiola adierazteko.



- 13.2. Salaketa jaso eta gehienez ere zazpi egunen buruan (7) Sistemaren kudeatzaileak azterketa bat egingo du horri buruz eta tramitatzeke motibaziorik ote dagoen aztertuko du.
- 13.3. Sistemaren kudeatzaileak informatzailearen identifikazio-datu guztiak kenduko ditu bere ondorioetatik, erabakiak hartzeko orduan isilpekotasuna eta inpartzialtasuna bermatzeko.  
  
Sistemaren kudeatzaileak ez du tramitatuko salaketarik argi badago salaketa ez dela fede onez egin, datu pertsonalak babesteari buruzko baldintzak betetzen ez baditu, edo agerikoa bada salatzen den jarduera ez dela irregulartasun bat.
- 13.4. Edonola ere, Sistemaren kudeatzaileak dagokion analisisia egingo du, nahiz eta salaketak ez bete haren tramitazioa onartzeko baldintzak, baldin eta salatutakoa larria bada eta beste edozein arrazoirengatik tramitatzea komeni dela ikusten bada.
- 13.5. Salaketa tramitatu behar ote den erabakitzeko, Sistemaren kudeatzaileak eska diezaioke informatzaileari hura argitzeko edo osatzeko eta beharrezkoak izan daitezkeen agiriak eta/edo datuak aurkezteko, hartara Irregulartasun bat dagoela egiaztatzeko.

#### **14. SALAKETAK SAILKATZEA**

- 14.1. Behin Salaketa tramitatzea onartuta, identifikazio-kode bat emango zaio. Kode hori "S" letraz hasiko da kasu guztietan, eta, gero, dagokion zenbakia eramango du, hau da, urtea eta dagokion Salaketa zenbakia. Horrela, urteko lehenengo salaketak 1/20xx zenbakia izango du.
- 14.2. Salaketa, salatutako egitateen larritasunaren arabera, honako hiru maila hauetan sailkatuko da:
  - a) Oinarrizko maila: Salaketak udalarentzat, langile profesionalentzat zein laguntzaileentzat edo beren aktiboentzat kalte edo galera mugatua duen kasuetan. Kaltea mugatua izateko ezaugarri hauek eduki behar ditu: erraz konpontzeko modukoa izango da, edo araudiren baten ez-betetze formal konpongarria; edo antzekoak.
  - b) Erdiko maila: Salaketak udalarentzat, langile profesionalentzat zein laguntzaileentzat edo beren aktiboentzat kalte edo galera larria duen kasuetan. Kalte larria izateko ezaugarri hauek eduki behar ditu: eragin esanguratsua izango du, konpontzen zaila, eta araudiren baten urraketa konponezina; edo antzekoak.



- c) Goiko maila: Salaketak udalarentzat, langile profesionalentzat zein laguntzaileentzat edo beren aktiboentzat oso kalte edo galera larria duen kasuetan. Kalte oso larria izateko ezaugarri hauek eduki behar ditu: esanguratsua izango da, konpontzen ezinezkoa edo zaila, legeren baten ez-betetze larri eta konponezina.

## 15. SALAKETA-ESPEDIENTEA TRAMITATZEA

- 15.1. Salaketa tramitatzea onartzen bada, Sistemaren kudeatzaileak gertaerak ikertuko ditu eta dagokion espedientea tramitatu.
- 15.2. Sistemaren kudeatzaileak egiaztatu egingo du salaketan agertzen den informazioa egiazkoa eta zehatza dela, batez ere, salatutako portaera, eragindako pertsonen eskubideak errespetatuta.
- 15.3. Entzunaldi tramitea egingo da salaketa jaso eta hurrengo hilabetean, salbu eta Sistemaren kudeatzaileak ondo oinarritutako arrazoiengatik hilabete atzeratzea erabakitzen badu.

Tramite horretan, gutxienez ere eta posible denean, salatutako portaeraren ustezko arduradunarekin izandako elkarrizketa sartu beharko da, errugabetasun presuntzioa babesteko bermeak errespetatuta. Elkarrizketa horren bidez, ustezko arduradunari esango zaio zein diren espedientearen oinarrian ageri diren egitateak, aukera emango zaio bere bertsio osoa emateko (egitate guztien berri), frogak aurkezteko, eta beharrezko diren galdera guztiak egingo zaizkio, kasuko inguruabarren eta salatutako egitateen arabera. Era berean, eragindako parte guztiei emango zaie izaera pertsonaleko datuen tratamenduari buruzko informazioa, eta izaera pertsonaleko datuen gaineko beste betebeharrak guztiak beteko dira.

- 15.4. Informatzaile guztiak behartuta daude ikerketan leialtasunez laguntzera.
- 15.5. Lekukoen eta eragindakoen esku-hartzea konfidentziala izango da erabat.
- 15.6. Eragindako parte guztiei emango zaie datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazioa, eta datu pertsonalen gaineko beste betebeharrak guztiak beteko dira.
- 15.7. Sistemaren kudeatzaileak, beharrezkotzat jotzen badu, kanpoko aholkularien laguntza jaso ahal izango du gertakariak ikertzeko, protokolo honetan datozen konfidentzialtasun-printzipioak errespetatuz.

## 16. ESPEDIENTEA EBAZTEA

- 16.1. Espedientearen tramitazioa amaitutakoan, Sistemaren kudeatzaileak ikerketa-espedientearen emaitzaren berri emango dio sistemaren organo arduradunari,



eta une bakoitzean beharrezkotzat jotzen duen informazioa helaraziko dio behar bezalako erantzuna emateko, betiere konfidentzialtasun-betebeharrak errespetatuta.

- 16.2. Espedientea tramitatzen amaitu ondoren, sistemaren arduradunak egokia iruditzen zaiona erantzungo dio hiru (3) hilabeteko epean, salaketa jasotzen den egunetik zenbatzen hasita. Epe hori 6 hilabete ere luzatu ahal izango da, kasuaren konplexutasunak hala eskatzen badu.
- 16.3. Emandako erantzunetik ondorioztatzen bada udaleko kide batek irregulartasunen bat egin duela, Sistemaren arduradunak Giza Baliabideen arduradunari jakinaraziko dio, diziplina-neurri egokiak aplikatu ditzan; neurri horien berri organo eskudunari emango diote.
- 16.4. Irregulartasun horrek Tokiko Gobernu Batzarreko edo Udalbatzarreko kideren bati eragiten badio, Sistemaren arduradunak alkateari eta gainerako kideei helaraziko die emandako ebazpena, organo eskudunak egokitzen eta komenigarritzat jotzen dituen neurriak har ditzan.
- 16.5. Emandako erantzunetik ondorioztatzen bada hornitzaile batek edo udalarekin harreman profesionala duen hirugarren batek Irregulartasunen bat egin duela, Sistemaren arduradunak Aholkularitza Juridikoko arduradunari jakinaraziko dio —dagozkion kontratu-eskubideak balia ditzan—, eta horren berri emango dio Sistemaren arduradunari.
- 16.6. Espedientearen ondorioz, legezko jarduketak egin daitezkeela adierazten bada, Sistemaren arduradunak Udaleko Aholkularitza Juridikoko arduradunari helaraziko dizkio jarduketak —kasuan kasuko jarduketa administratiboak edo judizialak has ditzan—, eta horren berri eman beharko diote Sistemaren arduradunari.
- 16.7. Nolanahi ere, Sistemaren arduradunak edo irregulartasunen ondorioz zehapenak ezartzeko eskumena duen edozein organok emandako erantzun guztiak behar bezala arrazoituta eta dokumentatuta egon beharko dira.

## **17. ERREGISTRO LIBURUA**

- 17.1. Kontsultak eta salaketak tramitatzean eta bereziki salaketa bat ikertzen den bitartean egindako jarduera guztiak behar bezala dokumentatuko dira, eta Sistemaren arduradunak Erregistro Liburu bat eramango du horretarako (sistemaren kudeatzailearen bidez).



- 17.2. Sistemaren arduradunak Sistemaren kudeatzailearen bitartez jasotzen dituen komunikazioen Erregistro Liburu bat eraman beharko du, honako informazio hau jasoz, eta alde batera utziz informatzailearen eta eragindako pertsonaren datu pertsonalak (xedea da barne kontrola eta estatistika):
- a) Salaketaren edo kontsultaren espediente-zenbakia.
  - b) Komunikazio-data.
  - c) Komunikazioaren deskribapena.
  - d) Komunikazioaren sailkapena.
  - e) Komunikazioari emandako ebazpena.
- 17.3. Nolanahi ere, salaketak tramitatzen ez direnean, erabakia arrazoitu egin beharko da, eta dagokion Erregistro Liburuan jaso.

**18. INFORMATZAILEA BABESTEKO AGINTARITZA INDEPENDENTEARI SALAKETA JAKINARAZTEA**

- 18.1. Informatzaileek balizko irregulartasunen berri eman ahal izango diote Informatzailea Babesteko Agintaritza Independenteari (aurrerantzean, **agintaritza independentea**).
- 18.2. Agintaritza independentean egindako salaketak edo informazioak 2/2023 Legearen 16. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera tramitatuko dira.
- 18.3. Gaur egun, oraindik onartzeko dago organo horren sorrera, bere araudia eta bere informazio-sistemara sartzeko eta komunikatzeko prozedura. Hura onartzean, protokolo hau eguneratu egingo da.





## **I. ERANSKINA. Irregularitasunei aplikatu beharreko araudia.**

1. Eranskina, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko urriaren 23ko 2019/1937 (EB) Zuzentarauarena, Batasunean Zuzenbidearen arloan egiten diren arau-hausteen gaineko informazioa ematen dutenak babesteari buruzkoa:

*La presente Directiva establece normas mínimas comunes para la protección de las personas que informen sobre las siguientes infracciones del Derecho de la Unión:*

- a) *infracciones que entren dentro del ámbito de aplicación de los actos de la Unión enumerados en el anexo relativas a los ámbitos siguientes:*
  - i. *contratación pública,*
  - ii. *ii) servicios, productos y mercados financieros, y prevención del blanqueo de capitales y la financiación del terrorismo,*
  - iii. *iii) seguridad de los productos y conformidad,*
  - iv. *iv) seguridad del transporte,*
  - v. *v) protección del medio ambiente,*
  - vi. *vi) protección frente a las radiaciones y seguridad nuclear,*
  - vii. *vii) seguridad de los alimentos y los piensos, sanidad animal y bienestar de los animales,*
  - viii. *viii) salud pública,*
  - ix. *ix) protección de los consumidores,*
  - x. *x) protección de la privacidad y de los datos personales, y seguridad de las redes y los sistemas de información;*
- b) *infracciones que afecten a los intereses financieros de la Unión tal como se contemplan en el artículo 325 del TFUE y tal como se concretan en las correspondientes medidas de la Unión;*
- c) *infracciones relativas al mercado interior, tal como se contemplan en el artículo 26, apartado 2, del TFUE, incluidas las infracciones de las normas de la Unión en materia de competencia y ayudas otorgadas por los Estados, así como las infracciones relativas al mercado interior en relación con los actos que infrinjan las normas del impuesto sobre sociedades o a prácticas cuya finalidad sea obtener una ventaja fiscal que desvirtúe el objeto o la finalidad de la legislación aplicable del impuesto sobre sociedades.*

2. Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 325. artikulua:

### *Artículo 325*

*1. La Unión y los Estados miembros combatirán el fraude y toda actividad ilegal que afecte a los intereses financieros de la Unión mediante medidas adoptadas en virtud de lo dispuesto en el presente artículo, que deberán tener un efecto disuasorio y ser capaces de ofrecer una protección eficaz en los Estados miembros y en las instituciones, órganos y organismos de la Unión.*

*2. Los Estados miembros adoptarán para combatir el fraude que afecte a los intereses financieros de la Unión las mismas medidas que para combatir el fraude que afecte a sus propios intereses financieros.*



3. Sin perjuicio de otras disposiciones de los Tratados, los Estados miembros coordinarán sus acciones encaminadas a proteger los intereses financieros de la Unión contra el fraude. A tal fin, organizarán, junto con la Comisión, una colaboración estrecha y regular entre las autoridades competentes.

4. El Parlamento Europeo y el Consejo, con arreglo al procedimiento legislativo ordinario y previa consulta al Tribunal de Cuentas, adoptarán las medidas necesarias en los ámbitos de la prevención y lucha contra el fraude que afecte a los intereses financieros de la Unión con miras a ofrecer una protección eficaz y equivalente en los Estados miembros y en las instituciones, órganos y organismos de la Unión.

5. La Comisión, en cooperación con los Estados miembros, presentará anualmente al Parlamento Europeo y al Consejo un informe sobre las medidas adoptadas para la aplicación del presente artículo.

3. 26. artikulua, EBFTaren 26. artikuluko 2. atala:

#### *Artículo 26*

1. La Unión adoptará las medidas destinadas a establecer el mercado interior o a garantizar su funcionamiento, de conformidad con las disposiciones pertinentes de los Tratados.

2. El mercado interior implicará un espacio sin fronteras interiores, en el que la libre circulación de mercancías, personas, servicios y capitales estará garantizada de acuerdo con las disposiciones de los Tratados.

3. El Consejo, a propuesta de la Comisión, definirá las orientaciones y condiciones necesarias para asegurar un progreso equilibrado en el conjunto de los sectores considerados.



**II. ERANSKINA. Posta-kontu elektronikoa anonimo bat sortzeko jarraibideak.**


1. Jo lotura honetara:

<https://accounts.google.com/signup/v2/createaccount?flowName=GlifWebSignIn&flowEntry=SignUp>

2. Sartu zure izen-abizenak (gezurretakoak).
3. Sartu jaiotegun bat.
4. Sortu erabiltzaile-izen bat.
5. Sortu pasahitz bat.
6. Bidali mezu bat kontua sortu dela egiaztatzeko.



UDALA osatzen duten pertsona guztiek Kanal Etikoa erabili behar dute.





**ARDURADUNARI DAGOKIO KUDEATU, TRAMITATU  
ETA IKERTZEA**

**BERMEAK**



**Errepresaliarik  
ez**

**Anonimotasuna**

**Konfidentzialtasuna**